


Guggenheim Bilbao Museoak

2005eko ekainaren 8an aurkezten du

RICHARD SERRA

DENBORAREN MATERIA



Erakusketaren babeslea:


ArcelorMittal

2005EKO EKAINEAN RICHARD SERRAREN INSTALAZIO IRAUNKORRA INAUGURATUKO DA GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAN

Historia modernoan espazio zehatz baterako egin den eskultura eskaririk handiena.

Maisu modernoen eta garaikideen Bilduma Iraunkorraren instalazio berria.

Guggenheim Bilbao Museoak gaur iragarri duenez, 2005eko ekainaren 8an Richard Serra artista estatubatuarren eskala handiko zazpi obraren instalazio iraunkorra aurkeztuko du jendaurrean. Obra berri horiek artistaren *Snake* (1994–97) obrarekin batera ezarriko dira Frank Gehryk diseinatutako museoaren galerietako batean (130 metro ingurukoan), hala espazio handi baterako sortu den eta historia modernoan aurrekaririk ez duen eskala eta asmo handiko instalazioa osatuz.

Instalazioaren babeslea ArcelorMittal da. Babes horregatik esker ona emateko, Richard Serraren instalazioa barne hartuko duen gelari ArcelorMittal Gela izen berria eman zaio.

Richard Serra XX. mendeko eskultorerik gailenetako bat da. Bere obra desafiatzailerik eta berritzailearik esker egin da ezagun, produkzio prozesuan, materialen ezaugarri berezietan eta espazioan zehar denborarekin izandako esperientzian oinarritutakoa dena.

“Guggenheim Bilbao Museoak obrak erosteko garaian jarraitzen duen funtsezko arauetako bat, munduko artistarik handienetakoei eskariak egitea da,” esan zuen Juan Ignacio Vidartek, Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendari Nagusiak. “Richard Serrari egindako eskari historiko honi esker, eskulturaren orainaldian eta etorkizunean interesatuta dauden pertsona guztiak erakarriko dituen leku bilakatu da museoa.”

“Richard Serrari egindako eskariak, artistak eta Guggenheimek 35 urtez elkarrekin izan duten harremanaren gailurra adierazten du,” adierazi zuen Thomas Krensek, Solomon R. Guggenheim Fundazioaren Zuzendariak. “Galeria hau XXI. mendeko arteari harrera egiteko asmoz sortu zen; Serra, eskala monumentaleko bere lanarekin, artista ezin hobea da galeria honek eskaintzen dituen aukera guztiak garatu eta gauzatzeko.”

Instalazioari buruzko informazio zehatza.

Serraren instalazioa, *The Matter of Time* (Denboraren materia) izenekoa, bere *Torqued Ellipses* (Bihurritu eliptikoak) eskulturetan garatutako hizkuntza oinarritzat hartuz eraiki da, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera ikusgai jarri ondoren mundu osoan eskulturaren historian izandako erabateko aurrerapentzat hartu izan ziren horietan. Zortzi eskulturak espazio osoarekin erlazioan eta elkarrekin harremanetan daude ezarrita. ArcelorMittal galerian sartzean, bisitaria instalazioaren espazioan sartzen da zuzenean, hiru espiralekin, *Single Torqued Ellipse* (Bihurritu eliptiko bakarra) batekin, *Double Torqued Ellipse* (Bihurritu eliptiko bikoitza) batekin, *Snake*-en kurba konikoekin eta sekzio esferikoez eta toroidalez osatutako bi obrekin eraikitako espazioa dena.

Serraren *Snake* obra, Guggenheim Bilbao Museoaren eskariz sortua, instalazioaren muina da orain. Hona hemen, ordena sekuentzialean, instalazioak barne hartzen dituen eskulturen zerrenda:

Torqued Spiral (Closed Open Closed Open Closed) [*Espiral bihurritua (Itxita Zabalik Itxita Zabalik Itxita)*], 2003-04

Dimentsioak: 4 x 13,08 x 14,07 m

Torqued Ellipse (Bihurritu eliptikoa), 2003-04

Dimentsioak: 4,26 x 8,3 x 8,84 m

Double Torqued Ellipse (Bihurritu eliptiko bikoitza), 2003-04

Dimentsioak: 4,26 x 11,4 x 12,2 m

Snake (Sugea), 1994-97

Dimentsioak: 4,01 x 31,7 x 6,82 m

Torqued Spiral (Right Left) [*Espiral bihurritua (Eskuina Ezkerra)*], 2003-04

Dimentsioak: 4,26 x 14,11 x 13,09 m

Torqued Spiral (Open Left Closed Right) [*Espiral bihurritua (Ezkerrean zabalik eskuinean itxita)*], 2003-04

Dimentsioak: 4,26 x 9,77 x 12,68 m

Between the Torus and the Sphere (Toruaren eta esferaren artean), 2003-05

Dimentsioak: 4,26 x 15,24 x 16,44 m

Blind Spot Reversed (Puntu itsu alderantzikatua), 2003-05

Dimentsioak: 4 x 9,03 x 17,2 m

Zortzi obra horiekin, Guggenheim Bilbao Museoak obrak eskuratzeko finkatutako jarraibide nagusietako bat bete du: artista hautatuen obretan oinarritzea, haien sormenari buruzko ikuspegi sakona

eskaintzearen. Guggenheim Bilbao Museoaren testuinguruan, Serraren obren eskalak eraginda, museo batean sartuta dagoen beste museo bat bilakatu da *The Matter of Time*, azken 20 urteotan artista honek landutako hiztegi formalaren instalaziorik konplexuena eta asmo handikoena bilduz.

Bilduma Iraunkorraren eta aldi baterako erakusketen galeriak.

Guggenheim Bilbao Museoak gero eta bilduma zabalagoa du, artista moderno eta garaikide handiek 1945etik gaurdaino sortutako obretan oinarritua. Ekainetik aurrera, museoaren lehenengo solairuko galeriak Guggenheim museoan bilduma iraunkorretako obren epe ertain eta luzerako erakusketak egiteko izango dira, XX. mendearen bigarren erdiko eta XXI.aren hasierako mugimendu artistiko garrantzitsuenak nabarmentzeko; izan ere, testuinguru horretan instalatuko da iraunkorki Serrari egindako eskaria. Serraren instalazioarekin batera, *Esperientzia partekatua: Guggenheim Museoan Bilduma Iraunkorra* erakusketa ikusgai jarriko da, eta bertan Guggenheim Bilbao Museoaren bildumako obrak ikusgai jarriko dira, besteak beste, Joseph Beuys, Anselm Kiefer, Richard Long, Robert Rauschenberg, James Rosenquist eta Andy Warhol artista bikainek sortutakoak.

Museoaren bigarren solairua aldi baterako erakusketa handietarako da; 2005eko martxoaren 19tik irailaren 18ra arte, *Azteken Inperioa* ikusteko aukera izango dugu bertan, XIII eta XVI. mendeen bitartean aztekek sortutako artelan kopururik handiena, nazioartean inoiz ikusi den zabalena. Oso harrera ona izan du kritikaren aldetik, eta 2004ko urriaren 15ean New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museoan estreinatu ondoren Bilbon aurkeztu da handitutako instalazio batean. Oso instalazio berezia da, kristalezko egitura mehe baten bidez espazio desberdinak sortzen baititu artelanen, ikuslearen eta eraikinaren artean, giro intimoa sorraraziz eta gardentasun maila desberdinen eta objektuen presentzia fisikoaren arteko kontrastea azpimarratuz.

Hirugarren solairuko galeriek Guggenheimen jabetzako erakusketa eta aurkezpen txikiagoak hartuko dituzte barnean, arte modernoaren eta garaikidearen arteko elkarrizketa sustatzeko. 2005eko martxoaren 8tik azaroaren 6ra bitartean *Arte Informala eta Espresionismo Abstraktua Guggenheim Bildumetan* erakusketa ikusi ahal izango dugu. Erakusketak joera bietako artistarik adierazgarrien obrak aurkezten ditu, esate baterako Sam Francis, Philip Guston, Franz Kline, Pierre Soulages eta Antoni Tapiesenak.

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio Arloa

Tel: +34 944359008

Fax: +34 944359059

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es